



txanela

Irakaslearen gidaliburua (zirriborroa)

4

Hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei...!

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

LAUGARREN UNITATE DIDAKTIKOA "HAMAR, BEDERATZI, ZORTZI, ZAZPI, SEI..."

Sekuentzia tematikoa: Unibertsoa

Zerua behatzen: gauetz, egunez.

Zer da infinitua?

Eguzkia izar bat al da?

Eguzkia lurraren inguruan?

Zer da planeta bat?

Planetak ezagutzen

Quaoar planeta berria?

Zergatik dago bizitza lurrean?

Gaua/eguna: linternarekin jolasten

Lurra esferikoa bada...

Ilargia zer da?

Extralurtarrak

Astronautak. Eiharts, lehen astronauta euskalduna

Elkarrizketa: munduaren sorrera

Munduaren sorrerari buruzko kondairak

ZE HAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	"Agur, agur, agur ilargira noa" abestia: bakea, gorrotoa, askatasuna, inbidia...
Osasun Hezkuntza	Eguzkiari zuzenean begiratzea? Eguzki gehiegi hartzea?

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Ipuina: On Josepe Inventatore, pentsalari dotore. M. Murua Olerkiak: X. Etxaniz, J. Ormazabal, J.M. Irigoien, A. Kazabon Bertsoa: M. Mendizabal Igarkizunak: X. Etxaniz
Ingurumena	Ilargitik Euskal Herrira: Lurra, Europa, Euskal Herria.
Musika eta gorputz motrizitatea	Euskaraz bizi, jolas abestia: "Trikitrixa" Tradiziozko abestia: "Agur, agur, agur, ilargira noa" Bestelako abestiak

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkartean garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartea eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturteetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuaren osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 4. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0	 IRAKASLEA	Baliabideen taula	3	93	
1	 TXANELA 2	Azalari behatzea	3	93	
2	 TXANELA 2	Komikia	4-5	94-95	
3	 <i>Ilargira noa</i>		5	95	Irakurgaiak 2, 42. or
4	 TXANELA 2	Zer dakizu? Zer jakin nahi duzu?	6	96	
6	 TXANELA 2	Txoko zuria eta proiektua	7	97	
8	 TXANELA 2	Musika ikasten ari gara	8	98	
8	 <i>Oskarbian</i>		8	98	
9	 <i>Hotsak bereizten</i>		8	98	Musikako lan-koadernoa, 23. or
10	 <i>Epoi tai tai e</i>		8	98	Musikako lan-koadernoa, 24. or
12	 <i>Bat, bi, hiru, lau</i>		8	98	Musikako lan-koadernoa, 26. or
14	 <i>Flash eta diz</i>		8	98	Musikako lan-koadernoa, 28. or
15	 <i>Musiken marrazkiak</i>		8	98	Musikako lan-koadernoa, 29. or
16	 <i>Hartzak</i>		8	98	Musikako lan-koadernoa. 30. or

17		<i>Kroa-kroa</i>	8	98	
18		Zerua behatzen: gauzez	9	99	
22		<i>Unibertsoariak</i>	9	99	
24		Olerkia	10-11	100-101	
27		Artelana: Joan Miró	12	102	
27		Joan Miró 1	12	102	
27		Joan Miró 2	12	102	
27		Joan Miró 3	12	102	
29		Eguzkia lurraren inguruan	13	103	
30		Zer da planeta bat?	14-15	104-105	
32		Planetak ezagutzen	16	106-107	
32		Bidaia unibertsoan zehar	16	106	
32		Espazioa	16	106	
32		Eguzki-sistema 1	16	106	
32		Eguzki-sistema 2	16	106	
36		<i>Trikitixa</i>	17	107	
37		Zergatik dago lurrean bizitza?	18	108	
38		Juri Gagarin • Euskaraz • Gazteleeraz	18	108	Lan-koademoa, 38. or

39		Day / Night	19	109	
41		Lurra esferikoa bada...	20	110	
43		Ipuina aitzakia	21	111	
45		Eta ilargia zer da?	22	112	
47		<i>Gaueko ilunean zuhaitz bitartean</i>	22	112	
48		Unibertsoan beste gizakirik bizi daitekeela uste al duzu?	23	113	
50		Beethovenen biografia	23	113	
50		Entzunaldia: Beethovenen <i>Ilargi zuria</i> sonata	23	113	
50		<i>Ilargi zuria</i> sonata	23	113	
50		<i>Ilargi zuria</i> sonata, gitarrarekin	23	113	
50		<i>Ilargi zuria</i> sonata, jazz bertsioa	23	113	
50		<i>Ilargi zuria</i> sonata pianoarekin	23	113	
50		Ipar Ameriketako indioen kondaira	23	113	
53		Astronautak	24	114	Irakurgaiak 2, 57. or
58		Komikia	25	115	
59		Unibertsoa	25	115	
60		Bideoa aitzakia	26-27	116-117	
63		Munduaren sorrerari buruzko kondairak	28	118	

64		Munduaren sorrerari buruzko kondairen laburpena	28-29	118-119	
65		Proiektua gauzatzen: Unibertsoa	30-31	120-121	
67		Sintesia	32	122	

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate Didaktikoaren azala.

Azalaren taldeko behaketa bideratuko dugu. Behaketa hauek, talde handian edota talde txikietan (2-3 lagun) txandakatuz egin ditzakegu. Aurrikuspen-estrategiak landuko ditugu.

- *Zer ikusten dugu?*
- *Zer jartzen du?*
- *Azala ikusiz eta bertan idatzita dagoena irakurriaz, zer nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?*
- *Atsegin al duzue gaia? Zergatik?*
- ...

2. Komikia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Hurrei banaka komikia irakurtzeko tartetxo bat eskainiko diegu. Ondoren, talde handian egingo dugu irakurketa. Hasi aurretik hurrak girotu egingo ditugu:

- *Nora joan dira oraingo honetan gure lagunak?*
- *Non lurreratu da denboraren makina?*
- ...

Ondoren, binetaz bineta guztion artean irakurriko dugu. Bigarren irakurketa batean xehetasunetara joko dugu. Arreta berezia jarrazaziko diegu azaltzen diren komiki-hizkuntzaren baliabideetan (harridurak, zurrunbiloa...).

Bukaeran, istorioa laburtuko dugu.

Ahozko adierazpena lantzeko 5. orrialdean azaltzen den komiki zatia, behar den doinuarekin irakurriko dugu, sentimendu hauek adieraziz: harridura, ilusioa, eta poza.

3. Abestia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: CDa; Irakurgaiak 2, 46. or.

Abestia CDan entzun eta ikasi ondoren, irakurgaietara joko dugu hurrek letra irakur dezaten.

Abesten duenak mundutik ilargira zer daraman (ezin ikusiak, gosea, gorrotoa, inbidia) eta zer uzten duen (nahirik onenak, bakea, osasuna, gizakiaren eskubideak, askatasuna) elkarrizketa bidez azter dezakegu.

- *Nolako litzateke mundua gorrotorik gabe?*
- *Zer egin daiteke gure mundua hobetzeko?*
- ...

4. Zer dakizu? Zer jakin nahi duzu?

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.

Hurrek, unibertsoari buruzko erreferentzia asko dituzte, bai marrazki bizidunetatik bai pelikuletatik jasotakoak. Beraz, ezertan hasi aurretik, gaiari buruzko aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. “Zer dakizu unibertsoari buruz?” galdera era labur batean erantzun ondoren, bakoitzak idatzitakoa taldean irakurri eta eztabaidatuko dugu.

Ondoren, gaiari buruz ikasi nahi dutena idazteko proposatuko diegu. Bildutako erantzunak guztion artean ordenatzen saiatuko gara, ikas-norabide bat antolatuz.

Beti aipatzen dugun bezala, unitateek ez dute zerbait itxia izan behar, bere garapena molda daiteke hurrek planteatzen dizkiguten interesen arabera.

5. Bertsoa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 2, 47. or.

Mikel Mendizabalen bertso honen bidez, gaiari kokatzen hasiko gara. Hurrek bertsoa irakurri eta abestu ondoren, errimari erreparatuko diogu.

- Zein uste duzue dela errima? Zergatik?

- Ezagutzen al dituzue beste hitz batzuk bukaera bera dutenak? Zeintzuk?

- ...

6. Txoko zuria eta proiektua

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Txoko zuria oraingoan “Gure unibertsoaren” txokoa bihurtuko dugu.

Gaiaren inguruko liburutegi espezifikoa, posterrak, panpinak, bildumak, kromoak, marrazkiak... jarriko ditugu bertan.

Unitate honetan proposatzen dizuegun proiektua, zeruko hainbat gorputzen zintzilikarioak egitea da: eguzkia, planetak, izarrak... Horretarako, polietilenoazko pilota batzuk edota puzten diren plastikozko/gomazko globo nahiz baloiak erabili ditzakegu oinarri gisa. Proiektuaren gauzatzea unitatearen azken orrialdeetan proposatzen den arren, dagoeneko materiala biltzen hasi zaitezke.

7. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Oraingoan, gurasoei txoko zurian jartzeko materiala eskatuz geuk idatzi beharrean, etxetik ekar dezaketenari buruzko elkarrizketa bat bultzatu ondoren, gurasoentzako oharra hurrei idaztea proposatuko diegu.

Etxetik ekarritako liburu, poster, aldizkari, jostailu, bideo... guztiak taldean aurkeztuko ditugu, hurrek ekarritako materialaren berri eduki dezaten eta gaiaren inguruko informazioa jasotzen joan daitezen.

8. Musika ikasten ari gara

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 8 or./CDa/CD-ROMa

Imanol Urbietak gaiaren inguruan sortutako abestia ikasi eta irakurriko dugu. Gogoratu CD-ROMean abestia entzun eta grabatzeko aukera daukazuela.

Musikako lan-koadernoko proposamenak

9. Hotsak bereizten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 23.or., 4.1. fitxa/CDa, jarduerak

Musika-tresna bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Musika sortzeko dauden bi modu erabilienak aipatuko ditugu oraingo honetan:

- Putz eginez soinua sortzen dutenak.
- Kolpatuz soinua sortzen dutenak.

Lan-koadernoan zazpi musika-tresna bakarrik agertzen dira, baina, zerrenda luza genezake ikasleen laguntzarekin.

Lan hau egiteko, marrazkiak ikustea aski izan badaiteke ere, komeni da CDa entzutea zein ordenatan azaltzen diren adierazteko.

10. Epoi tai tai e

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako Lan-koaderno, 24.or., 4.2. fitxa/CDa, jarduerak

Abesti aski ezaguna eta hedatua da. Bi ariketa proposatzen ditugu. Bi proposamenak egiterakoan ezinbesteko garrantzia du erritmoa ongi markatzeak. Azken finean, erritmoa lantzeko ariketa bat da, beltzen pultsazioa izango delarik ariketaren oinarria.

- Lehenengo ariketa: ez da lan-koadernoan agertzen dena baina bai ezagunena eta erabiliena dena. Beraz, proposatzen diren mugimenduak ongi adierazten saiatuko gara. Jarrera: lurrean eserita, indioen antzera hankak tolestuta eta guztion artean borobil bat osatuz.

KANTUAK DIONA	EGIN BEHARREKO MUGIMENDUA
Epoi (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpe izterretan
Tai tai (θ θ)	2 pultsazioetan bi txalo
E (θ θ θ θ)	4 pultsazio ditu eta bi besoak gurutzatuz, lau kolpe bularrean
Epoi (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpe izterretan
Tai tai (θ θ)	2 pultsazioetan bi txalo
E (θ θ θ θ)	4 pultsazio ditu eta bi besoak gurutzatuz, lau kolpe bularrean
Epoi (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpe izterreta
Tai tai (θ θ)	2 pultsazioetan bi txalo
Epoi (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpe izterretan
Tuki tuki (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpetxo buruan bi eskuekin
Epoi (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpe izterretan
Tuki tuki (θ θ)	2 pultsazioetan bi kolpetxo buruan bi eskuekin
E (θ θ θ θ)	4 pultsazio ditu eta bi besoak gurutzatuz, lau kolpe bularrean

Guztira 32 pultsazio, taupada, edo beltz dira adierazten ditugunak.

- Bigarren ariketa: lan-koadernoan agertzen den ariketa.

Jarrera: lehen bezala jarraitzen dugu lurrean eserita, borobil bat osatuz eta elkarren ondo-ondoan. Oraingoan 4 dira barneratu behar ditugun mugimenduak, baina beti ere, beltzen erritmoa ongi markatuz. θ θ θ θ

Denbora guztian mugimendu berdinak dira eta ariketa erraztu asmoz pultsazio bakoitzari hitz bat jarri diogu. Hitz hori mugimendua memorizatu arte esango dugu. Gero hitz horren ordez abestia kantatuko dugu. Ea ulertzen den.

HITZA	MUGIMENDUA
Ni (θ)	Bi eskuz neure izterrak kolpatuko ditut.
Eskuina (θ)	Eskuineko eskuarekin nire eskuinean dagoen lagunaren ezkerreko izterra eta nire ezkerreko eskuarekin neure eskuineko izterra kolpatuko ditut. Biak batera.
Ni (θ)	Bi eskuz neure izterrak kolpatuko ditut.
Ezkerra (θ)	Ezkerreko eskuarekin nire ezkerrean dagoen lagunaren eskuineko izterra eta nire eskuineko eskuarekin neure ezkerreko izterra kolpatuko ditut. Biak batera.

Agian zaila irudituko zaizue horrela esplikatuta, baina ziur egon: oso erraza da eta, entrenamendu saio txiki bat egin ondoren kantuan hasteko prest egongo gara.

11. Zuria (η)

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koaderno, 25.or., 4.3. fitxa

Zelula erritmiko berria agertu zaigu. Orain arte landutakoen artean luzera edo iraupen handiena duen zelula.

- Zuriak (η) , soinu bat du, luzea baina bakarra. Iraupena ordea bi taupadetakoa da.

- Beltzak (θ) taupada bateko iraupena duen soinua markatzen digu.

- Kortxeek (εε) berriz, taupada bateko iraupenean bi soinu markatzen dizkigute.

Hiru zelula hauek gorputzez lantzen baditugu, errazena beltzak markatzea dela konturatuko gara. Zuriak markatzerakoan, pausaldia, nolabait esateko, mantsotu egin beharko dugu. Bi taupada edo pultsazio sentitu arren soinu bakar bat egin behar dugu.

Ariketa bat proposatzen dizuegu:

- Gustuko duzuen eta biko konpasa duen kanta bat aukeratu. “Kilometro bat oinez” adibidez. Perkusiozko tresna batez zelulak markatuko ditugu.

Beltzarekin hasiko gara. Gelan zehar ibiliz, beltzek markatzen duten erritmoa sentitu eta biziko dugu.

Kantuaren airea edo abiada aldatu gabe kortxeetara pasako gara. Pausoak bikoiztu egin beharko ditugu. Berriz ere beltzek markatzen duten erritmora bueltatuko gara.

Azkenik zurien txanda helduko da. Pausoa lasaiagoa izango da eta aldi berean, pixka bat luzeagoa egiten saiatuko gara.

12. Bat, bi, hiru, lau

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 26.or., 4.4. fitxa/CDa, jarduerak

Mi, Fa eta Sol dira melodia honetan agertzen diren notak. Baina protagonismoa nota zuriarentzat izango da, izan ere, bere lehenengo kanta baitu gurean.

Nota berdinak erabiliz, hainbat erritmotako kantatxoak proposatzea komenigarria da. Horrela notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek.

13. Hartz musikariak

Lan egiteko era: Talde handian-Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 27.or., 4.5. fitxa.

Zelula erritmiko bakoitza irudikatzea, lagungarria izan daitekeela pentsatu dugu. Lan-koaderno honetarako “hartzaren familia” aukeratu dugu.

Hartza txikiak bi dira, kortxeak bezala ($\epsilon\epsilon$). Neba-arrebak, baina batez ere lagunak. Gehienetan sorbaldatik helduta joaten dira eta horrelaxe irudikatu ditugu, bi kortxeen forma dutela dirudite.

Beltza (θ) berriz hartza ama da. Lasaia baina tinkoa.

Eta zuria (η) berriz, hartza aita da. Lasaia, oso lasaia. Ipurdia bezain handia du bihotza. Oso mantso mugitzen da.

Ibilaldi batean, aitaren parean joan ahal izateko, hartza amak bi pauso eman behar ditu, eta hartza txikiak berriz, lau.

Gogoan izan: $\eta = \theta \theta = \epsilon\epsilon\epsilon$

14. Musikarien txokoa

Lan egiteko era:

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 28.or., 4.6. fitxa/CDa, jarduerak

Oraingoan, izarren musika sortu nahi genuke, baina nola? Nolakoa ote da izarren musika? Lan-koadernoan kanta bakarrik jarri dugu, eta kantari laguntzeko hatzekin egindako mugimendu txiki batzuk proposatu. Baina hori guztia begiz jasoko dugu, eta guk entzumenaren ere landu nahi dugu. Aipatu, kantua, jardueren CDko 23.a da.

Galdetu iezazue zuen ikasleei zein materialekin irudikatzen duten izarren soinua.

Beira zatitxoekin? Edo iltze batzuk zintzilikatu eta goxo-goxo astinduz? Jar ezazue imajinazioa martxan eta ziur gaude oso dotorea izango dela zuek sortutako “Gau oskarbiko musika”.

15. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 29.or., 4.7. fitxa/CDa, jarduerak

Lau musika zati ditugu entzungai. Marraztea atsegin dute gure ikasleek eta zergatik ez, musika bakoitzak marrazki bat inspiratu dezake.

Marrazki hauei baldintza plastiko bat ezarri diezaiekegu: puntua, lerroa eta mantxa erabiltzea musikak iradokitzen diguna adierazteko. Musikak zerbait erreala dena noten bidez adierazten duen bezala, plastikoki ere gauza bera egin daitekeela konturatzea nahi dugu. Horrela, errealismoa saihestu dezakegu eta musikak sortzen dituen sentsazioak iradoki. Pintzelak eta tenperak erabiliz gero, komenigarria litzateke DIN A-3 neurriko kartulina erabiltzea.

“Elefantea” (Animalien inauteria). Saint-Saëns.

“Idazmakina”. Anderson.

“Eulitzarraren hegaldia”. Rimsky-Korsakov.

Hiru musika zati hauek entzungo ditugu eta gure ustez bakoitzari zein marrazki dagokion adierazi behar dugu.

Ondoren, laugarren musika zatia entzungo dugu. Jarraian, musika zati honek iradoki digun marrazkia egiten saiatuko gara. Baliteke norbaitentzat musika ezaguna izatea “Blade Runner” filmeko sintonia baita. Ariketa honekin goian aipaturiko musikagileek eginiko alderantzizko lana burutuko dugu. Haiek elefantea, idazmakina eta eulitzarra zituzten buruan musikak sortzeko garaian. Guri musika eman zaigu eta zerbait irudikatu behar dugu.

16. Hartzak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 30.or., 4.8. fitxa/CDa, jarduerak

Sei notaz osaturiko kantua da, hiru zelula erritmikoz baliatuz.

Nota berdinak erabiliz, hainbat erritmotako kantatxoak proposatzea komenigarria da. Horrela notak irakurtzeko ohitura hartuko dute ikasleek.

17. Kroa-kroa

Materiala: CDa, jarduerak

Igelen kantua. Gu ere, igelen antzera, saltoka mugituko gara baina ez edozein modutan. Nota zuriak markatuz egingo ditugu saltoak. Nahi izanez gero uztai batzuekin ibilbide bat zehaztu dezakezue. Ez da komeni oso ibilbide luzea egitea zenbait haurrentzat neketsua baita postura horretan, bi zangoekin batera saltoak emanaz, denbora luze jarrotea. Nahikoa duzue 8 uztai jartzea. Lehenengo haurra abian jarri ondoren, bigarren doanak itxaron egin beharko du, gutxienez aurrekoa hirugarren uztaira iritsi arte. Honela “istripu” gutxiago izango dira.

Kroa-kroa!
Igelak, kroa-kroa! errekan.
Kroa-kroa! dabilta, salto, saltoka
Kroa-kroa!
Igelak, kroa-kroa! errekan.
Kroa-kroa! dabilta, salto, saltoka

Barrutik barru, aurrera egin dut,
kanpotik kanpo, bukatu dut bapo.

Xixupika 3, 77.orrialdea.

18. Zerua behatzen: gauez

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 9. or.

Ikaslearen liburuko 9. orrialdean agertzen diren galderak erantzun ahal izateko, egun batzuk lehenago, gauean zerua behatzeko esango diegu hurrei, aukera asko baitituzte begiratzen hasten diren egunean zerua lainotuta egon eta ezer ikusi gabe gelditzeko.

Orrialde honetan agertzen diren galderak banaka erantzuteko eskatuko diegu eta ondoren, hauen inguruan taldean eztabaidatuko dugu.

Bigarren galderaren erantzun posibleak kontuan hartuz, bakoitzak zer erantzun duen galdetuko diegu hurrei. Hainbat erantzun agertzen badira, erantzun berdinak aukeratu dituztenen artean taldeak osatu eta besteen aurrean beraien erantzuna arrazoitzeko eskatuko diegu.

Beste galderetan zer erantzun duten entzun eta eztabaidatu ondoren, azken galderari erreparatu baino lehenago, Joxan Ormazabalen olerkira joko dugu.

19. Olerkia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 2, 48. or.

Infinituaren kontzeptuak asko erakartzen ditu haurrak adin honetan: zerua infinitua al da? Zer da infinitua?... Olerkia taldean irakurri ostean banaka irakurtzeko eskatuko diegu.

20. Haurren hipotesiak: zer da infinitu? Zenbat da infinitu?

Lan egiteko era: Talde handian

Olerkia irakurri ondoren elkarrizketa bultzatuko dugu gelan infinitu kontzeptuaren inguruan eta bi galdera botako dizkiegu: beraien ustetan, zer den eta zenbat den infinitu.

Haur guztiek erantzun dezaten korruan eseriko gara eta banaka-banaka erantzun beharko diote proposatutako galderari. Guk, hurrek emandako erantzunak hitzez hitz idatziko ditugu.

Segidan, bakoitzak emandako definizioan oinarrituz marrazki bat egiteko eskatuko diegu, ondorengo jarduera egin aurretik. Marrazkia egiten hasi aurretik, elkarrizketan bakoitzak esandakoa berriro irakurriko diegu.

Haurren definizioak eta marrazkiak elkartuz, aldizkaritxo bat osatuko dugu hurrek etxera eraman dezaten.

Aldizkariaren azala egiteko, enbalatzeko papera eman eta, kolore eta formen bidez, “infinitua” adierazteko eskatuko diegu.

21. Infinitua

Bi ispilu hartzen baditugu eta bata bestearen aurrean jarri, etengabe errepikatzen den irudi infinitua lortuko dugu. Galdetu hurrei zergatik gertatzen ote den hori. Ondoren, ikusi dutena marrazki bidez adierazten saia daitezke.

22. Abestia: Unibertsolariak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa

Abesti alai hau entzun eta buruz ikas dezakegu.

23. Planetak jausteko zorian? Ez horixe! Laguntza eman eta hartzeko joko kooperatiboa

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Jolas bat egingo dugu orain. Gela unibertsoa izango da eta gu haren zati izango gara eta gure helburua planetak airean mantentzea izango da.

Ikasleak bikoteka jarriko dira eta bien artean planeta izango den pilota edo puxika lurrera jausi gabe mantendu beharko dute. Horretarako, eskuak izan ezik, gorputzeko atal guztiak erabili ahal izango dituzte (burua, paparra, besoak, hankak...). Ikasleak gelan zehar mugituko dira, bi gorputzen artean pilota mantenduz. Jausi eta lurra ukituz gero, berriro hartu eta jolasten jarraituko dute.

Gogoratu beste gai batzuetan landutako jokatara jolasteko aukera ere hor dagoela.

Saioari bukaera emateko esperientziari buruz hitz egingo dugu.

24. Eguzkia izar bat al da?

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10 eta 11. or.

Liburuan agertzen den erantzuna irakurri aurretik, interesgarria litzateke entzutea hurrek zer nolako erantzunak ematen dizkioten *eguzkia izar bat al da?* galderari. Anjel Lertxundiren “Eguzki amandrea” olerkia irakurri ondoren, ondoko orrialdean agertzen diren galderari buruzko hausnarketa bultzatuko dugu taldean. Hausnarketa egin ostean, galderak haur bakoitzak erantzun beharko ditu idatziz. Bukaeran, erantzunak talde handian konpartitu eta eztabaidatu ditzakegu.

25. Zerua egunez

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Gure irudimena lantzeko zerua egunez aztertuko dugu. Horretarako, egun lainotu bat aukeratu behar dugu, baina zerua ez da guztiz lainotuta egon behar, laino batzuekin baizik.

Jolastokira aterako gara eta haur bakoitzak laino bat aukeratuko du eta bere formaren arabera laino hori zer izan daitekeen imajina dezala.

Ondoren, forma pare bat edo hiru elkarturik ipuin labur batzuk asma ditzakegu.

Adibidez:

Egun batean elefantea, lore baten gainera igo zen eta paseatzera joan ziren.

Behin batean erraldoi batek ipotx batekin topo egin zuen eta barre asko egin zuten.

Forma horiek eta imajinatu ditugunak marrazki baten bidez irudika ditzakegu. Marrazki hauei izenburua jartzea polita izan daiteke.

26. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 49. or.

Hurrei, eguzki eta izarren inguruko igarkizun hauek asmatzea ez zaie oso zaila egingo. Hasteko, banaka irakurtzeko eta igarkizuna zein den asmatzen saiatzeko eskatuko diegu eta ondoren taldean irakurriko ditugu.

27. Artelana: Joan Miró

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. or.

Artelana behatu eta Joan Miróren biografia irakurri ondoren, taldean artelanaren azterketa bultzatuko dugu:

- *Zergatik uste duzue jarri ziola izenburu hori?*
- *Zer nolako koloreak erabiltzen ditu artistak?*
- *Alaia iruditzen al zaizu artelan hau?*
- *Bertan agertzen diren objektuak nola daude kokatuta?*
- ...

Mirók erabiltzen zituen marrak, formak eta koloreak erabiliz, tenperaz bakoitzak gure koadroa egin dezakegu. Kartoi handi samarra lortzen baduzue, taldeka ere egin dezakete, baina horretarako, aurre-diseinu bat egin beharko dute paperean. Izenburua jarriko diegu.

28. Ipuin literarioa: Izar euria irakurri eta berridazten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: 3. lan-koadernoan 34, 35 eta 36. or.

Unitate honetan lantzea proposatzen zaizuen ipuina, Felipe Juaristik idatzitako eta Elena Odriozolak ilustratutako IZAR EURIA da (Elkarlanean, Lamia saila).

Hasteko, beti bezala, euskarriaren azterketa egingo dugu: azala, idazlea, marrazkilaria etab. aipatuz. Ziur dagoeneko Elena Odriozola ezagutzen dutela hainbat tokitan ikusita. Ondoren, azalean ikusitakoaren inguruko elkarrizketa sortuz, gaiaren inguruko hipotesiak egitera bultzatuko ditugu ikasleak. Marrazkiak baino pista gehiago zalantzarik gabe, izenburuak ematen dizkigu kasu honetan. Irakasleak irakurri bitartean, ulermena bermatzeko eta motibazioak piztuta jarrai dezan, argibide batzuk emango dizkiegu ikasleei. Era berean, ekintzak aurrakusten saiatuko gara, aurrera joan ahala gure hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz eta hauen inguruko inferentziak eginez.

Irakurri ondoren, sintesi-estrategiak jarriko ditugu martxan. Elkarrizketa garatu (gustatu zaien, zer gustatu zaien gehien, ikasgairik atera dezakegun ipuin honetatik...). Denon artean ipuinaren inguruko ahozko laburpena egingo dugu, jarraian, arbelean zati garrantzitsuen eskematxo bat idatziz.

Arbelean idatziriko eskema jarraituz, ikasleek banaka nahiz binaka euren lan-koadernoan ipuina berridatziko dute. Laguntzeko, erakutsi ipuinen txokoak jarrita ditugun pistak.

Gogoratu, zuzenketa guztiak momentu berean egiteak ikasleari nahasmena eta frustrazioa ekar diezazkiokeela, beraz komenigarria da ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta mugak kontuan izanik, ipuin bakoitzean gauza baten, edo biren zuzenketa bultzatzea. Ikasle bakoitzak, zuen laguntzarekin, bere lana zuzentzea bultzatu nahi dugu. Beharaziz, berriro irakurriz, ipuinen txokoan dauden erreferentziak kontuan hartuz... Beti ere ziurtatuz ikasleak ulertu duela zer zuzendu behar duen eta zein pauso jarraitu behar dituen zuzenketa hori bideratzeko.

29. Eguzkia lurraren inguruan?

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 13. or.

Ezertan hasi aurretik, hurrei galdera hau luzatuko diegu: *Zuek zer uste duzue, eguzkia lurraren inguruan ala lurra eguzkiaren inguruan dabilela? Zein mugitzen da?*

Zergatik?

Beti bezala, guk haurren erantzun guztiak onartuko ditugu eta erantzun kontrajarriak badaude, desberdin pentsatzen duten haurren aurrean beraien jarrera arrazoitzeko eskatuko diegu. Ideiak trukatu eta gaia taldean eztabaidatu ondoren jarraituko dugu liburuan agertzen den erantzunarekin.

Segidan, historian zehar galdera honen inguruan gizakien pentsaera nola aldatzen joan den ikusiko dugu. Horretarako, orrialde horretan agertzen diren esaldiak osatu beharko dituzte.

Nahi izanez gero, entziklopedietara (adibidez, wikipedia, Harluxet...) jo dezakegu hiru pertsonaia hauen inguruko datu gehiago bildu eta horma-irudiaren bat egiteko.

30. Zer da planeta bat?

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 14 eta 15. or.

Orain arte izarrekin bueltaka ibili gara, eta eguzkia ere izar handi bat dela ikusi dugu, baina, zer dira izarren inguruan bueltaka dabiltzan zeruko gorputzak?

Unitate honetan agertu diren galdera guztien aurrean egin dugun bezala, erantzuna hasieratik geuk eman beharrean, beraiek hausnarketa egitera bultzatuko ditugu.

Horretarako erantzun guztiak onartu eta beraien artean eztabaida bultzatuko dugu.

Segidan, eta orrialdera jo aurretik, ezagutzen dituzten planeten izenak izendatzeko eskatuko diegu. Taldean bi jarduera hauek egin ondoren orrialdean agertzen dena irakurri eta geuk hausnartutakoarekin alderatuko dugu.

Gure eguzki-sisteman dauden bederatzi planeten izenak ikasten hasiko gara.

Ondoko orrialdean agertzen den jardueraren bidez, orain arte unitatean hausnartu eta landu ditugun zenbait kontzepturen inguruko gogoeta bultzatuko dugu:

- *Eguzkia izar bat al da?*
- *Izarrek argia dute, eta planetek ez?*
- *Planetak izarren inguruan biraka dabilta?*

31. Olerkia: Planetak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 50. or.

Hasiera batean, Joan Mari Irigoienek olerkia geuk irakurriko diegu eta ondoren, beraiek irakurtzeko eskatuko diegu. Olerki honen bidez bederatzi planeten izenak barneratzen joango gara.

32. Planetak ezagutzen

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16 eta 17. or.

Bi orrialde hauetan eguzki-sistemaren bederatzi planeten inguruko hainbat informazio agertzen da eta azpialdean, eguzkiaren inguruan nola dauden kokatuta bederatziak.

Haurrek, erraza ez bada ere, deskribapen bakoitza dagokion planetarekin lotu beharko dute.

Jarduera hau egitean eta planeten inguruko datuak barneratuz goazen neurrian, beste jarduera mota batzuk asma ditzakegu. Adibidez, planeta misteriotsurena: haurrak taldeka banatuko ditugu, talde bakoitzak planeta bat pentsatuko du eta besteek galderak eginaz, talde bakoitzak pentsatutako planeta zein den asmatu beharko dute.

Planeten irudiak hainbat webgunetan aurki ditzakegu (google webgunean, adibidez).

33. Letra-zopa

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 3. lan-koadernoak, 37. or.

Planetekin jarraituz, letra-zopa honetan bederatzien izenak aurkitu beharko dituzte.

34. Quaoar planeta berria?

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 51. or.

Orain dela gutxi, hamargarren planeta izan zitekeen zeruko gorputz bat ikusi omen zuten zientzialariek. Hau dela eta, berria irakurriz honen inguruko informazioa jasoko dugu.

Gaiaren inguruko elkarrizketa egin ondoren, berriaren egiturari buruzko hausnarketa bultzatuko dugu:

- *Zein da titularra?*
- *Nola dago idatzita?*
- *Azpi-titularra zein da?*
- *Biak era berdinean al daude idatzita? Letraren tamaina, esaldiaren luzera...*
- *Argazkirik ba du? Berri guztiek dute argazkirik? Zergatik uste duzue batzuetan agertzen dela eta beste batzuetan ez?*
- *Argazkiaren oinak zer adierazten du?*
- *Nola dakigu zeinek idatzi duen berria?*
- *Berriek zer funtzio dute?*
- ...

35. Gu gara eguzki-sistema

Lan egiteko era: Talde txikian

Talde txikitan eguzki-sistema irudika dezakegu. Egin itzazue 10-11 hurrez osatutako taldeak, ilargia irudikatuko duzuen ala ez kontuan izanda. Guztien artean kartulinaz eguzkiaren mozorroa egin erdian jarriko den haurrak eraman dezan. Oihal horia edo gorria baduzue, tunika moduan erabil dezake. Beste haurrak planetak (eta ilargia) izango dira. Lehenik, norberaren izena eta eguzkiarekiko kokapena zehaztu. Ondoren, musika egoki bat (entzunaldi lasai bat) aukeratu eta haren erritmoan has dadila gure eguzki-sistema dantzan. Gela iluntzeko aukerarik baduzue, eguzkiak linterna bat eduki dezake eskuan eta planetak hurbiltzen zaizkion neurrian argizta ditzake.

36. Jolas abestia: Trikitixa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa

Aurreko jardueraren jarraipen modura lan dezakezue hau. Planetak eguzkiaren inguruan dabilzan bezala, jolas honetan ere erdian kokatzen den haurraren inguruan ibiliko dira haur guztiak. Jolasean erdian dagoenak esaten duen guztia egin behar dute besteek. Ondo pasa!

37. Zergatik dago bizitza lurrian?

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.

Zergatik uste duzue dagoela lurrian bizitza? Elkarrizketa motibagarria benetan! Haurren hipotesiak kontuan hartzen badituzue oso aldizkari polita osa dezakezue gai honen inguruan ere!

Hurrek hausnarketa egin ostean, liburuak zer dioen irakurriko dugu eta beraiek botatako hipotesiekin alderatuko dugu.

Segidan, liburuan agertzen diren bi esperimentuak gelan egiten saiatuko gara. Edozein arrazoi dela eta ezingo bazenituzkete esperimentu horiek gelan egin, gurasoei ohartxo bat idatzi edota liburua etxera eramanez, etxean burutzeko eskatuko genieke.

Esperimentuak egin ondoren, gertatutakoaren inguruko beste hausnarketa bat egin eta haur bakoitzak galderei erantzun diezaiela.

38. Juri Gagarinek egindako deskribapena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: 3. lan-koadernoan, 38. or.

Lan-koadernoan agertzen den testuaren bidez, hitzen banaketa eta puntuaren inguruko lanketa egingo dugu. Lehenago ere aipatu izan den moduan, egokiena zuzenketa hauek eurek sortutako testuetan egitea. Jarduera honek alderdi jakin batzuetan arreta jartzeko balio diezaguke. Adibidez, puntua, esaldi bakoitzari bukaera emateko erabiltzen dugu eta, arauak dioenez, puntuaren ondorengo lehen letra larria izan behar da.

Beraz, hurrek testua behar den bezala berridatzi beharko dute.

39. Ingelesa: Gaua/eguna

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or./Material osagarria

How does day turn into night?

Materials:

- Hole punches and mats
- Butterfly clips (2 each)
- An orange (or grapefruit)
- A torch
- A globe

Start as usual by asking the pupils what they have been working on and getting them to show you the work in their classroom.

Today, in English we're going to talk about DAY and NIGHT.

Is it day or night now? Day. Yes, you come to school in the day, and play and eat etc.

What do you do at night? Sleep. Why? Because it is dark. Because you are tired.

What time does it become night? When is the night? (At p.m.)

And what time does it become day? (At a.m.)

So, how does the day turn into night? What happens? Why does it become dark?

Help the pupils formulate any answers they might have.

Then take an orange/grapefruit and a torch. Explain that the orange is the earth and the torch is the light of the sun. Draw a cross on the orange to show where we are.

O.K. This orange is the earth (like the globe over there) and we are here (mark with a cross). Now here is the sun. This is the light from the sun (shine the torch), look the sun is shining on us. It's very sunny and hot. But the earth moves round. Is the sun shining on us now? No. There's no light on this side. It's dark. It's night.

So how long does it take for the earth to turn round? One day, yes 24 hours. We have day and night every 24 hours.

Then direct them to their books.

Look at Reddy. What's he saying? Good day and Good night

Look here is the sun. It is yellow and bright. And here we are going to put the earth.

But the earth moves so we need to attach it with a clip, so we can move it.

(Show them your book with the earth already attached)

Get them to cut out the earth and the joining stick. Go around helping them to make holes with a hole puncher and mat and give them butterfly clips to attach them.

You may decide to attach the moon at the same time. The moon goes round (orbits) the earth. It takes one month to go around the earth. So sometimes there is a lot of sunlight shining on it and it looks big and round (full) and sometimes there is very little sunlight shining on it so it looks small and thin (crescent).

Some facts

The earth spins on its axis. It takes 24 hours to rotate.

The moon orbits the earth. It takes one month to orbit the earth. We always see the same side of the moon.

The earth orbits the sun. It takes 365 days and 6 hours to orbit the sun.

40. Gaua/eguna: linternarekin jolasten

Lan egiteko era: Talde handian

Hurrek, gaua eta egunaren ideia era plastiko batean ikus dezaten, lurraren globo bat eta linterna bat eramango dugu gelara. Linterna eguzkia izango da.

Euskal Herria globoan aurkitu eta seinalatu ondoren, linterna piztu eta mantso-mantso lurrari buelta ematen hasiko gara.

- *Orain zer da Euskal Herrian? Gaua? Eguna?*
- *Eta Ipar Amerikan?*
- *Eta hemen argitzen ari denean non iluntzen ari da?*
- ...

41. Lurra esferikoa bada...

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. or.

Poxen globoan agertzen den gogoeta irakurri eta bertan agertzen den marrazkiari behatu ondoren, horra hausnarketa interesgarriak bultzatzeko eta haurren hipotesiak idatziz jasotzeko beste aukera bat!

Segidan, Newtonen inguruko diktaketa bat egingo diegu haurrei. Newton aurkeztu eta bere izena arbelean idatzi kopia dezaten.

Hona hemen testua:

1687an, Newton izeneko zientzialari batek errebelazio bat izan zuen: grabitatea! Sagar bat zuhaitzetik erortzen ikustean, Lurrak, iman batek bezala, dena bere zentrorantz erakartzen zuela konturatu zen.

42. Ipuina: On Josepe inventatore, pentsalari dotore

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 52, 53, 54 eta 55. or.

Ipuina irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu:

- *Izenburua irakurrita zertaz uste duzue izango dela ipuina?*

Haurren hipotesiak entzun ondoren, 52. orrialdean agertzen den testua irakurtzen hasiko gara.

Lehenengo mailan, ipuina irakasleak lasai eta ozenki irakurtzen zion taldeari. Bigarren mailan, nahi izanez gero, haurrei txandaka irakurtzen joateko eskatuko diegu.

Lehenengo zatia irakurri ondoren, haurrei, irakurritakoaren inguruan hipotesiak egin ditzaten, hainbat galdera egingo dizkiegu. Irakurritakoari buruzko galderak erantzun ondoren, 53. orrialdean agertzen den testua irakurtzen jarraituko dugu...

Bigarren orrialde hau irakurri ondoren, berriro hurrengana zuzenduko gara irakurritakoari buruzko galdera batzuk eginaz eta hurrengo orrialdean gertatuko denari buruzko hipotesiak egiteko eskatuz. Galderak erantzun eta hipotesiak bota ondoren, irakurketarekin jarraituko dugu 54. orrialdean.

Lehen haurrek botatako hipotesiak ipuinean benetan gertatu denarekin alderatu ondoren, beste galdera sorta bat proposatuko diegu istorioan zehar gerta daitekeenari buruz.

Bukatzeko, 55. orrialdean agertzen den ipuinaren azken zatia irakurriko dugu eta ondoren, ipuinean gertatu dena eta haurrek botatako hipotesiak alderatuko ditugu.

43. Ipuina aitzakia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.

Ipuinaren ulermena sendotzeko, asimilaziorako, taldean eztabaidatzeko galdera batzuk aurkituko dituzue orrialde horretan. Segidan, munduaren sorrerari buruz haur bakoitzak duen iritzia idazteko aukera emango diegu.

Oraingoz, haur bakoitzak idatzi duen iritzia ez dugu talde aurrean irakurriko, aurrerago gaiari berriro helduko baitiogu.

44. Olerkia: ilargia eta eguzkia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakurgaiak, 56. or.

Antton Kazabonen olerkia geuk irakurriko diegu hasiera batean. Ondoren, beraiek bakarrik irakurtzea proposatuko diegu.

45. Ilargia zer da?

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Ilargia noren inguruan dabil jiraka? Erantzuna ematea ez zaie asko kostako!
Liburuan agertzen den erantzuna irakurri ondoren, olerkia irakurriko dugu.

46. Gurutzegrama

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka

Materiala: 3. lan-koadernoak, 39. or.

Orain arte landutako ideien inguruko galderak erantzun beharko dituzte hurrek gurutzegrama osatu ahal izateko.

47. Abestia: gaueko ilunian

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa.

Abesti honek, haurrak bi taldetan banatu eta kanon bat lantzeko aukera eskaintzen digu.

48. Estralurtarrak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Merezi duen beste eztabaida bat bultzatuko dugu! Unibertsoan beste gizakirik bizi daitekeela uste al duzu?

Segidan, haur bakoitzak irudimena martxan jarri beharko du estralurtar bat marrazteko. Irudimena martxan dutela aprobetxatuz, eguzkia, izarrak, planetak, ilargia eta estralurtarren inguruko definizio xeble batzuk idatzi beharko dituzte.

49. Gure planeta berria.

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka

Guk asmatutako planeta berri bat plastikoki irudikatzen saiatuko gara. Kollagea izan daiteke orain erabiliko dugun teknika. Planeta horretan estralurtarrak ere bizi dira. Estralurtar horiek, animalia-gorputza edo objektu batena izan dezakete eta burua beste batena "bestiario" moduko bat osatu dezake regularik. Eraman itzazue gelara koloretako aldizkariak eta aurkitzen dituzten elementuak irudimenez konbinatuz sor dezatela beren planeta imaginarioaren eszena bat edo beste.

50. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak

Unitate honetan entzungo dugun musika Beethovenen “Ilargi zuria” sonataren lehenengo mugimendua izango da. Beti bezala, lehenengo gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu. Horretarako, Beethovenen argazki bat fotokopiatu, bere izena kartulina batean idatzi eta azpian bere biografia itsatsiko dugu.

Txokoan itsatsi aurretik, noski, taldean irakurriko dugu eta segidan Beethoveni buruz zer dakiten galdetuko diegu. Hona hemen bere biografia:

Beethoven, Ludwig Van. Konpositore alemaniarra (Bonn, 1770 – Viena, 1827). Oso umetan erakutsi zion aitzak pianoa jotzen. 1792an Bonndik Vienara bizitzera joan eta irakasle bikainak izan zituen, besteak beste, Haydn. Berehala bihurtu zen pianojole eta konpositore ospetsu, batez ere, kontzertuetan egiten zituen inprobisazioengatik. 1800 inguruan gaixotu egin zen eta gaitzak gorrieria ekarri zion. Garai hartako sufrimenduak ordea, ez zuen lanetik aldentu eta konposizio-lanetan murgildu zen. Bere estiloa pertsonala da, bitalista eta dramatikoa, erritmo biziduna eta kontraste dinamiko bortitzekoa. Lan nagusiak: pianorako 32 sonata, 9 sinfonia, 2 meza, 6 obertura, pianorako 5 kontzertu eta areto-musika.

Biografia landu ondoren, entzunaldia egingo dugu. Musika jartzerakoan Ipar Ameriketako indioen kondaira irakurriko diegu mantso-mantso.

Ipar Ameriketako indioen kondaira

Kondaira honen arabera, Eguzkia eta Ilargia, buruzagi handia eta haren emaztea dira: izarrak berriz, beren seme-alabak.

Eguzkiak ahal duen guztietan bere seme-alabak irensten omen ditu. Horrexegatik, Eguzkia datorrela ikusten duten bakoitzak ihesari ekiten diote txikiak. Gaez, Eguzkia tunel batean ezkutatu eta bere barneraino irristatzen da Lurraren erdigunera iritsi artean; bertan lo egiten du.

Goizaldean, tuneletik barrena arrastaka jarraitzen du ekialdetik irteten den arte. Goiz argi denean, bere seme-alaben atzetik ibiltzen omen da zeruan zehar hauen suak behar baititu bizirik irauteko.

Eguzkia ezin da bere osotasunean Lurretik ikusi; bere egiazko eiteak sugandilaren itxura baitu. Bere irudiaz ikus dezakeguna bere sabela da: jan dituen izarrek erretzen duten sabelaren argia.

Bere emazte Ilargia, zenbaitetan berarekin oheratzen da Lurraren erdigunean. Baina askotan berriz, Eguzkia petral egoten da eta bidali egiten du. Orduan, Ilargia gaez bere seme-alabekin jolastera joaten da zerura. Jolasean, dantzan eta kantuan ibiltzen dira eta elkarrekin gustura egoten dira.

Ilargiak min hartzen du, Eguzkiak beren seme edo alabetako bat irensten duen bakoitzean, irentsi beharrean dagoela jakinda ere.

Horregatik, hilero bere alde bat ezkutatzuz, aurpegia iluntzen du galdu dituen txikitxoak gogoratuz eta tristura negar malkotan urtuz.

51. Egunerokoan hitz arraroak daude.

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: 3. 3. lan-koadernoan, 40. or.

Ez dakigu ilargian gizakiren bat bizi ote den, baina astronauta batek bidalitako mezu batean hitz arraroak agertu dira eta ez da oso ondo ulertzen. Egizu lan-koadernoan agertzen den aginduak diona eta ea ulertzeko gai zaren!

52. Ba al zenekien...

Lan egiteko era: Binaka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 57. or.

Irakurgaietan agertzen diren esaldi hauen bidez, hurrek gaiari buruzko informazioa jasoko dute. Testu nahiko luzea eta zaila denez, hasiera batean bakarrik irakurri beharrean binaka irakurtzea proposatuko diegu hurrei, ezagutzen ez dituzten hitzak azpimarratuz. Azpimarratutako hitzen esanahia talde handian hiztegiaren bidez (prozeduraz hitz egin) argitu ondoren, bigarren irakurketa bat egiteko esango diegu bikoteei. Segidan, nahi izanez gero, talde handian irakurriko dugu.

53. Astronautak

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or.

Irakurgaietan irakurritakoa oinarri bezala hartuz, hurrek, orrialde honetan agertzen diren esaldiek egia ala gezurra dioten adierazi beharko dute.

54. Eiharts, lehen astronauta euskalduna

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 58. or.

Astronauten espazioko bizi baldintzei buruz hitz egiten egon gara, baina ezagutzen al duzue astronautaren bat? Eta ilargia lehen aldiz zapaldu zutenak nortzuk diren? Ba ote dago astronauta euskaldunen bat?

Galdera horiek guztiak irakurgaietan agertzen den informazioaren bidez argituko ditugu.

55. Eihartsen egunerokoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: 3. lan-koadernoan, 41. or.

Leopold Eiharts Miarritzen jaio zen, beraz, historiako lehen astronauta euskalduna da. Lan-koadernoan bere egunerokotik hartutako hiru egunetako pasadizoak desordenean aurkituko dituzu. Ordenatu ondoren, testu bakoitzari dagokion data jarri beharko diozu. Era honetako jarduera gehiago CD-ROMean aurki ditzakezue.

56. Txisteak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 59. or.

Barre egiteko garaia iritsi denez, txisteak banaka irakurtzen saiatuko gara. Ondoren talde handian hauek eta beste batzuk kontatu ditzakegu.

57. Noren egunerokoa da?

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: 3. lan-koadernoan, 42. or.

Lan-koadernoan agertzen den testua nork idatzi duen asmatzeko kapaz izango al zinateke?

58. Buelako komikia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.

Hasiera batean haurrei bere kabuz irakurtzeko proposamena luzatuko diegu. Zer ulertu duten aztertu ondoren, taldeko irakurketa egingo dugu. Segidan, berriro banaka irakurtzeko proposamena luzatuko diegu.

59. Bideoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Bideoa

Bideoan, ilargitik Euskal Herriraino egindako bidaia ikus dezakete. Ilargitik aireratu ondoren, espaziotik ikusten den lurraren argazkia ikusiko da. Lurra ikusten delarik, pixkanaka-pixkanaka makina jaisten-jaisten joango da: kontinenteak bereiziko ditugu eta Europan kokatuko gara Euskal Herrira iritsi arte.

- Zergatik deitzen ote diogu Lurrari “planeta urdina”?

- Ekarriko ditugu gogora Kontinenteen izenak?

- Non dago Euskal Herria?

60. Bideo aitzakia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 26 eta 27. or.

Bideoan ikusitakoaren arabera, orrialde hauetan agertzen diren galderak eta jarduerak erantzun eta egingo ditugu. Eskura itzazue hainbat mapa behaketarekin jarraitzeko (mapamundia, Europakoa, Euskal Herriko politikoa)

61. Elkarrizketa: munduaren sorrera

Lan egiteko era: Talde handian

Aurreko jarduera batean, hurrei munduaren sorrerari buruzko hipotesia idazteko eskatu genienez, bakoitzak orduan idatzitakoa taldean irakurri ondoren, gaia honen inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu haurren artean. Kultura bakoitzean mito ezberdinak agertzen direla esango diegu eta egun batzuetan kondaira ezberdinak kontatuko dizkiegu.

62. Munduaren sorrera indio amerikarren mitoan

Lan egiteko era: Bakarka-Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 60. or.

Munduaren sorrerari buruzko lehen kondaira irakurgaietan agertzen denez, indio amerikarren mitologian oinarritutakoa, hurrek banaka irakurtzeko aukera izango dute. Banaka irakurri ondoren, irakasleak taldeari irakurriko dio.

63. Munduaren sorrerari buruzko kondairak

Lan egiteko era: Talde handian

Kondaira japoniarra

Izanagi eta Izanami.

Japoniarrek uste izan zuten lurra hasieran itxuragabeko ore multzoa zela. Izanagi jaikoak eta Izanami jainkosak ore lantza luze batekin nahastu zuten eta apurka-apurka nahastura hori trinkotzen joan omen zen, lantza muturretik jaurti eta uharte bilakatu zen arte. Jainkoa eta jaikosa ezkondu egin ziren eta seme-alaba gehiago izan zituzten, Japoniako zortzi uharte bilakatu zirenak, hain zuzen.

Ipar Amerikako indiarren mitologia

Belea.

Ipar Amerikako indiarren arteko mito batek dioenez, bele bat hegan omen zebilen pausatzeko lekurik topatu ezinik. Orduan, harri kozkorrak jaurti omen zituen uharteak sortzeko eta ondoren zuhaitzak sortu omen zituen. Basoan animaliak bizi ziren eta itsasoan arrainak. Beleak zura eta buztina erabiliz lehen gizonezkoa eta lehen emakumezkoa egin zituenean mundua osatuta gelditu omen zen.

Bibliak dioena

Hasiera liburutik

Hasieran Lurra nahas-mahas bat zen eta Jainkoak esan zuten: "Izan bedi argia!" eta argia sortu zen. Argiari eguna deitu zion eta ilunari gaua. Hauxe izan zen lehen eguna.

Mitologia Egiptoarra

Bizitzaren arrautza.

Mitologia egiptoarraren arabera, bizia uretan sortu omen zen, bertatik jatorrizko mendixka bat altxatu zenean. *Karakari handia* hegaztitzarra lurralde horretan pausatu omen zen eta bizitzaren arrautza errun omen zuten. Eta horixe izan omen zen bizitzaren sorrera.

64. Munduaren sorrerari buruzko kondairen laburpena

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28 eta 29. or.

Geuk irakurritako kondairak beraien erara idazteko proposamena luzatuko diegu. Ondoren, ezagutzen ditugun kondairak taldean alderatuko ditugu.

65. Proiektua gauzatzeko

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 30 eta 31. or.

Plastikozko baloiak, globoak edota tamaina desberdinetako poliespanezko pilotak eskuratu beharko ditugu izarrak, planetak eta eguzkia egin ahal izateko.

Bi orrialde hauetan agertzen den prozesua jarraituz, ea zer nolako zintzilikarioak egiten dituzuen! Eredua gisa, unitatean zehar ikusitako gorputzak (planetak, sateliteak, izarrak...) erabil ditzakegu.

Gorputz hauek zintzilikatzeko era desberdinak erabil ditzakezue taldekatzearen arabera. Banakakoa edo talde txikitakoa egiteko, soka batzuetatik alantze egindako aro bat zintzilikatu eta ondoren aro hartatik planeta bakoitza erraz zintzilika daiteke.

66. Bertsoa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: 3. lan-koadernoan, 43. or.

Mikel Mendizabalen bertsoa osatu eta abestuko dugu guztion artean.

67. Sintesia

Lan egiteko era: Talde handian-Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Beti bezala, unitatea bukatzen ari garen une honetan, sintesi lana egingo dugu. Oraingo honetan, gaiarekin lotura duten hitzak marrazki batean integratzeko eta behealdean, beraien egindako marrazkiari buruzko lau lerro idazteko eskatuko diegu.

Utzi, nahi badute, aurrez unitate osoa begiratzen, bertatik informazioa hautatuz ideiak hartuko baitituzte.